



MUSIKA

Bidean aurrera



UTOPIAN GARA ASKE AZKEN SUSTRAIAK

AUTOEKOIZPENA, 2019

IKER BARANDIARAN

Taldeen izenek eta haienganako izan ditzakegun aurreiritziek tesi baterako eman dezakete lasai asko. Izan ere, Beasaingo talde honen izena lehen aldiz entzun nuenean reggae orbitan kokatu nuen... Baina ez da horrela: Oi! edo street-punk estiloetan trebatutako ki-deek osatzen dute, eta proiektu honekin harago joatea erabaki zuten, ñabardura asko dituen punk melodikoa egitea, hain zuzen ere.

Beasain izan da aspaldian kaleko doinu-eremua, eta Azken Sustraiakeko bi kidek The Sinners izan zuten oinarri. 2017an, baina, bestelako doinuak probatzea erabaki zuten eta poliki-poliki laukotea osatu zuten. 2018an, eraldatze hori irudikatuz *Azal berri bat* lan luzea

argitaratu zuten, eta jarraian boskote bihurtu.

Ideiak are eta argiago, eta soinu gero eta irmoagoarekin, utopiekin aurrera egitearen aldeko aldarria den *Utopian gara aske* lan sendoa kaleratu dute. Ideiak argi, batu aurretik hausnartzeko ezinbestekoak diren hitz argigarriak, talde lotura egokia, gitarra oso aberatsak, eta estilo-paleta zabala. Zoritxarrez, beste asko eta askori bezala, pandemiak bidea moztu die.

Nor nori nork punk-rock melodikoa da, itsaskorra eta indartsua, Alemaniako punka gogora ekartzen duena. *Cristales rotos* Social Distortionen melodiak eta Oi!-aren ukitua dituen kanta sendoa. *Prest al gaude?* Never Surrender gogora

ekartzen duen pieza nostalgikoa. *Refugio* Crime eta hastapenetako Turbonegro gogora ekartzen duen pieza punk-rockero garratza. *Anormalak gara* Sex Pistols, punk-Oi!-a eta estereotipoen kontrako hitz sinesgarriak batzen dituen koktelera. *Hilezkorrak* Arrasateko tabernaren batean erditu ahal zen folk-Oi!-punk pieza biluzia. *Eterna guerra interna* zapalgailurik gabeko punk-rock garratza. *Isiltasun eta lokatz* Mike Ness azkarrenari gorazarrea. *Moscas* punk-rock eta Oi! klasikoa. *Gezurari egia* oso ondo orekatutako tempo erdiko punk-rocka. *Algunas balas* punk-hard-rock-and-roll kanta borobila. Eta, azkenik, *Crear para crecer* AEBetako hegoaldeko doinu puruetatik ederto edaten duen punk melodikoa. ●